

Funtsezko elkarteak:

Gure proiektua funtzionatzeko eta aurrera eramateko hainbat bazkide izan beharko ditugu:

Alde batetik, udalekin eta instituzio publikoekin harremanetan jarri beharko gara zerbait antolatzen badute gure aplikazioan jartzeko eta zabaltzeko, adibidez Gasteizko udalak euskal dantzen ekitaldi bat antolatzen du, plaza berrian, guk hori gure aplikazioan jartzen dugu eta interesatuta daudenei bidaltzen diegu. Beraz, Euskal Herriko Udaletxeak, baita ere, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritza, funtsezko elkarteak dira guretzat.

Gero, kultur etxeekin, museoekin, antzokiekin, ekitaldi antolatzaileekin eta enpresekin, lan egin beharko genuke, beraiek egiten dituzten ekintza kulturalak gure aplikazioaren bidez ezagutzera eraman dezaketelako eta aplikazioan jartzen dugun informazioa egunekoa eta fidagarria izateko balio izango du lankidetzat hau.

Ondoren, gure aplikazioan, kontzertu edo ekitaldi baterako sarrerak erreserbatu eta erosi ahal direnez, zerbitzu hau kudeatzen laguntzen digun enpresa bat beharko genuke, horren ondorioz, ordainketa zerbitzuak egiten dituen enpresa batekin lan egin beharko genuke, sarreraren erreserbak eta erosketak modu fidagarri batean eta legal batean egiteko.

Azkenik, gure aplikazioa modu optimo batean funtzionatzeko, garatzaile digital batekin lan egin beharko dugu, haiek lagundu ahal dezaketelako tresna teknologikoen sorreran eta mantenimenduan, gainera, aplikazioaren alde teknologikoena sortzen lagunduko ziguketen, softwerra sortzen adibidez. Guk aplikaziorako behar ditugun tresna teknologikoak erabiltzeko haiek guri laguntzeko.



